

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Korrika 2019ko antolatzaileak hartu ditu Barkos Lehendakariak

*Garesen hasiko da datorren apirilaren 4an*

Asteazkena, 2019.eko martxoak 20

Uxue Barkos, Nafarroako Lehendakaria eta Ana Olló, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak, gaur goizean 21. Korrikako arduradunei harrera egin diete. Korrika, euskararen aldeko ekimena, datorren apirilaren 4an abiatuko da Garesetik.

Lehendakariak, aurtengo edizioko proposamena, "Klika", ezagutzeko aukera izan du. Korrika, Garesen hasiko da apirilaren 4an, eta hiru egunetan zehar Nafarroako hegoaldean ibili ondoren, apirilaren 6an iritsiko da Iruñera. Ekimenak, 10 egunetan, osotara, 2.000 kilometro baino gehiago egingen ditu.



Ezkerretik eskuinera, AEK-ko koordinatzaile nagusi Mertxe Mujika, Barkos Lehendakaria eta 2019 Korrikako arduradun Asier Arrondo.